



Teresa printzesa. Un cuento sobre la primera bombera de dragones

<http://www.sorginatxirulina.eus/teresa-printzesa>

Bazen behin gaztelu eder batean bizi zen printzesa bat. Teresa zuen izena eta gurasoek, txiki-txikitatik, gehiegi babestu zuten.

Egia da Teresa nahiko txikia zela, indar gutxi eta **oreka** eskasa zeukala. Eta zer esan bere orientazioari buruz... bere logelan eta guzti **galtzeko gai** zen gure printzesa!

Érase una vez un princesa que vivía en un castillo.

Se llamaba Teresa y desde pequeña, sus padres la habían protegido demasiado.

Es verdad que era pequeña de tamaño, que tenía poca fuerza y muy poco **equilibrio**. ¡Y qué decir de su orientación! ¡Sería **capaz de perderse** en su propia habitación!

Teresa oso **irudimen** handiko neska zen eta gehien gustatzen zitzaion kolorea **morea** zen.

Berak ez zuen gustuko printzesa arrosa eta printze urdinen arteko kontu hori, ez. Teresak nahiago zuen bi koloreak nahastu, eta horregatik, **morez janzte**a gogoko zuen. Horrez gain, oso burugogorra zenez, askotan leporatzen zioten berak ez zuela inoiz **amore ematen**:

Printzesak, nahi zituen proposamen guztiak lortzen zituen, **kosta ahala kosta**.

Teresa era una niña con mucha **imaginación**, y el color que más le gustaba era el **morado**.

A ella no le gustaban las princesas rosas ni los príncipes azules; Teresa prefería mezclar los dos colores y **vestirse de morado**. Además, era muy cabezota. Muchas veces le reprochaban que nunca **cedía**. La princesa conseguía todo lo que se proponía, **costara lo que costara**.

Teresak animaliak maite zituen eta dragoiak ziren bere **gogokoenak**. Askotan besteen aurrean defendatu behar zituen dragoi gizajoek fama txarra zeukatelako:

—Dragoiak ez dira gaiztoak! Eta zerbait **kiskaltzen** badute, nahigabe egiten dute **eztula egitean**!

Neska basora joaten zen, eta han ordu luzeak eman ahal zituen dragoi taldeek hegan nola egiten zuten begiratzen. Teresak nahiago zuen naturan egotea gazteluan egotea baino.

A Teresa le encantaban los animales, y los dragones eran sus **favoritos**. Muchas veces tenía que defenderse porque tenían muy mala fama los pobres.

—¡Los dragones no son malos! Y si **calcinan** algo es porque lo hacen sin querer al **toser**.

La niña solía ir al bosque y allí podía pasarse horas mirando el vuelo de los dragones.

A Teresa le gustaba más estar en la naturaleza que en el castillo.



Urteak joan urteak etorri, printzesak **lanbidea** aukeratu behar zuen eta berak argi zeukan:

—Suhiltzailea izango naiz! Baina ez edozein suhiltzailea, ez. Ni dragoirena izango naiz eta etxeak edo hiriak **nahigabe** erretzen dituztenean lagunduko diet —esan zien gurasoei.

Erregina eta erregea **harrituta** geratu ziren alabak esandakoarekin.

—Baina laztana.. zuk badakizu ez duzula indar askorik eta zure orekarekin ezingo zenuke dragoi baten gainean hegan egin.... Agian, hobe da lorezaina bazara. Loreak ere asko gustatzen zaizkizu— esan zion erregeak.

—Aita, mesedez. Suhiltzaileen eskolan sartu ahal naiz?

Pasaron los años, y la princesa tenía que elegir una **profesión**. Ella lo tenía claro:

—¡Seré bombera! Pero no cualquier bombera, no. Seré bombera de dragones y les ayudaré cuando quemem **sin querer** las casas y la ciudades—les dijo a sus padres.

El rey y la reina se quedaron **asombrados** con las palabras de su hija.

—Pero, cariño... ya sabes que no tienes mucha fuerza y además, con tu equilibrio, nunca podrías volar sobre un dragón. Igual es mejor si te haces jardinera.

Las flores también te gustan mucho—le dijo el rey.

—Aita, por favor. ¿Puedo entrar en la escuela de bomberos?

Azkenean gurasoek baietza eman zioten eta bere lehenengo eskola egunean, beste gelakideei bere asmoa kontatu zien eta **bere kontura barre egin** zuten.

Irakasleak esan zion dragoien suhiltzaile oso gutxi daudela, animalia horiek oso **krudelak** direlako, eta horien gainean joaten direnek oreka bikaina izan behar dutela baita **indar** itzela ere hamaika ur litro **bizkarrean** eramateko. Eta gainera, guztiak mutilak zirela. Hobe izango zela beste lan bat aukeratzea.

Al final los padres aceptaron. El primer día de escuela Teresa contó a sus compañeros su intención y **se rieron de ella**.

El profesor le dijo que había muy pocos bomberos de dragones porque esos animales son muy **fieros**. Y además, para poder montar sobre ellos, se necesita tener un equilibrio perfecto y una **fuerza** descomunal para poder llevar muchísimos litros de agua sobre la **espalda**.

Y por no mencionar que el resto de bomberos de dragones eran chicos.

Será mejor que elija otro trabajo.

Teresa, hasieran **suntsituta** geratu zen. **Burumakur**, eskolatik irten eta basora joan zen.

Naturaren soinuek animatuko zutela pentsatu zuen, baina ez. Oso triste sentitzen zen printzesa eta, bat-batean, basoko argi batean **adineko gizon** bat ikusi zuen.

Japoniarrak ematen zuten gizonak eta suarekin malabarismo ariketa batzuk egiten ari zen.

—Zelako trebetasuna dauka! – pentsatu zuen Teresak.

Teresa se quedó **destrozada**. **Cabizbaja**, salió de la escuela y su fue al bosque.

Pensó que los sonidos de la naturaleza le animarían. La princesa se sentía muy triste, y de repente, en un claro del bosque vio a un **hombre mayor**.



El hombre parecía japonés y estaba haciendo ejercicios de malabares con el fuego.

— ¡Vaya **habilidad** tiene! — pensó Teresa.

Berarengana hurbildu zen eta **bere burua aurkeztu** zuen. Gizonak Suyagi zuen izena eta neskak haxe esan zion:

— Ez bazaizu axola **Suyagi Jauna**, deituko dizut. **Errespetu handia azaldu nahi dizut**

Teresak kontatu zion eskolan gertatutakoa. Eta Suyagik esan zion:

— Egon lasai, **matxinsalto txiki**. Nik **irakatsiko dizut**. Oreka mantentzen erakutsiko dizut, baita sua kontrolpean izaten. Ah! Eta nirekin ere pazientzia handiko emakumea bihurtuko zara.

Se acercó a él y se **presentó**. El hombre le dijo que se llamaba Suyagi y la princesa le dijo:

— Si no le importa, le llamaré **Señor Suyagi**, le **quiero mostrar respeto**.

Teresa le contó lo que le había sucedido en la escuela y Suyagi le contestó:

— Estate tranquila, **pequeña saltamontes**. Yo te **entrenaré**.

Aprenderás a mantener el equilibrio y controlar el fuego.

¡Ah! Y conmigo te convertirás en una mujer con mucha paciencia.

Hurrengo goizean Suyagiren etxera joan zen eta Teresak haren kotxea garbitu behar izan zuen.

— **Eman argizaria, leundu argizaria**— esan zion Suyagik.

Teresa guztiz haserretu egin zen: Zergatik garbitu behar zuen kotxe hori?

Hurrengo egunean, Suyagi Jaunak bere etxeko hormak margotzeko agindu zion

— **Eskua gora, eskua behera**— esan zion irakasleak.

Eta, **sutan** zegoen Teresa!!

A la mañana siguiente fue a la casa del Señor Suyagi y tuvo que limpiar su coche.

— **Dar cera, pulir cera** —le dijo Suyagi.

Teresa se enfadó. ¿Por qué tenía que limpiar ella el coche?

Al día siguiente, el maestro le ordenó que pintara las paredes.

— **Mano arriba, mano abajo**— le dijo el maestro.

¡Teresa estaba **muy muy enfadada!**

Baina hurrengo egunetan gorputzarekin hainbat ariketa egin zituzten eta poliki-poliki bere oreka hobetzen hasi zen.

Eta azkenean, **sua kontrolpean** izaten ikasteko eguna heldu zen!

Egia da **erredura** batzuk jaso zituela Teresak baina **gogotsu entrenatu** zuen eta laster suarekin ere ondo moldatzeari ekin zion. Suyagik kontatu zion lurra erabiliz sua hobeto menperatzen zela.

Pero los siguientes días estuvieron haciendo varios ejercicios con el cuerpo y poco a poco, su equilibrio fue mejorando.

Y al final, ¡llegó el día de aprender a **controlar el fuego!**



Es verdad que hizo varias **quemaduras**, pero **entrenó muy duro** y pronto empezó a manejar el fuego. El maestro le dijo que el fuego se controlaba mejor con tierra.

Kontua zen bera hain txiki izanda, nola eramango zituen ur litroko motxila erraldoi horiek? Eta horretarako ere, irakasleak bazuen erantzun bat:

— **Ez du axola nor den indartsuagoa, nor den azkarragoa baizik.**

Esaldi horrek **zur eta lur** utzi zuen, baina pentsarazi zion ere.

Aste bat **pentsakor** ibili zen eta...

—Badakit zer egingo dudan!

El problema era que ella siendo tan pequeña, ¿cómo podría llevar las gigantes mochilas con litros de agua? Y para eso, su maestro también tenía una respuesta.

— **No importa quién más fuerte, importa quién más listo.**

Esa frase la **descolocó**, pero le dio qué pensar.

Estuvo **pensando** una semana y..

— ¡Ya sé lo que voy a hacer!

Suyagiren laguntzarekin suak itzaltzeko produktu natural bat asmatu zuen lurra, hosto lehorrak eta **txingarrak** nahasiz. Produktu horren kantitate txiki bat erabiliz suak itzali ahal izango zituen eta garrantzitsuena: ez zen oso **pisutsua!**

Produktu hori plastikozko bote handi batean gorde zuen eta soka baten laguntzaz, bizkarrean jarri zuen.

Con la ayuda de Suyagi inventó un producto natural para apagar los fuegos mezclando tierra, hojas secas y **brasas**. Con una pequeña cantidad de ese producto se podían apagar fuegos y lo más importante: ¡No era muy **pesado!**

Guardó el producto en un bote de plástico, y con una cuerda, se lo colocó en la espalda.

—Matxinsalto txiki, prest zaude- esan zion Suyagi Jaunak Teresari.

Printzesak irakaslea besarkatu eta suhiltzaileen eskolara itzuli zen. Beste ikasleek **goitik**

behera begiratu zuten: aldatuta zegoen Teresa eta zerbait arraroa eramaten zuen bizkarrean.

—Non daude dragoiak? – galdetu zion printzesak eskolako irakasleari.

Irakasleak esan zion dragoi talde bat **ekialdean** zegoela.

—Pequeño saltamontes, estás preparado – le dijo el Señor Suyagi a Teresa.

La princesa abrazó a su maestro y volvió a la escuela de bombero. El resto de alumnos le miraron de **arriba abajo**: Teresa estaba cambiada y llevaba algo muy raro en la espalda.

— ¿Dónde están los dragones? –le preguntó al profesor de la escuela.

Le contestó que había un grupo de dragones en la zona **Este**.



Eta Teresa harantz abiatu zen. Dragoiak topatu zituenean esan zien:

—Kaixo, Teresa naiz eta nahigabe egiten dituzuen suak **itzaltzen lagundu** nahi dizuet.

Jarraian, dragoi batean igo zen eta oreka izugarri batekin zerua zeharkatu zuen. Zelako poza hartu zuen printzesak!

—Ederra da hegan egitea!!!—oihukatu zuen.

Y Teresa se dirigió hacia allí. Cuando encontró a los dragones, les dijo:

—Hola, me llamo Teresa y os quiero **ayudar a apagar** los fuegos que hacéis sin querer.

Seguidamente, se subió en un dragó y con un increíble equilibrio, cruzó el cielo.

¡Qué felicidad sintió la princesa!

—¡Es maravilloso volar! —gritó.

2 ordu eman zituen hegan eta herri txikitxo batetik pasatu zirenean, **tupustean** dragoi batek eztulka egin eta etxe bat harrapatu zuen. Baina Teresak bizkarrean zeraman potetik produktua hartu eta etxearen gainera bota zuen. Ondorioz, sua itzali zen. Eztula egin zuen dragoiak Teresari eskerrak eman zizkion.

Estuvieron dos horas volando y cuando pasaron por pequeño pueblo, **de repente**, uno de los dragones y le dio a una casa. Teresa cogió el producto que llevaba en su espalda y lo echó sobre una casa. Así, el fuego se apagó. El dragón que había tosido le dio las gracias a la princesa.

Ilunabarrean eskolara bueltatu zenean beste ikasleek txalokatu egin zuten eta irakasleak zoriondu egin zuen. Horrela, Teresa, **dragoien lehenengo emakume suhiltzailea** bihurtu zen. Geroago, basoan zuhaitz-etxe bat eraiki zuen, eta larunbatero Suyagirekin geratzen zen eta igandero bere familia bisitatzera joaten zen.

Eta horrela, poz-pez bizi izan zen Teresa printzesa, dragoien suhiltzailea.

Al **anocheecer**, cuando volvió a la escuela, todos los alumnos le aplaudieron y el profesor la felicitó. Así, Teresa se convirtió en la **primera bombera de dragones**.

Más tarde, se construyó una casa-árbol en el bosque y todos los sábados quedaba con Suyagi y los domingos iba a visitar a su familia.

Y así vivió muy feliz la princesa Teresa, la bombera de dragones